

# TOPAKORD

Akordeoi-jole  
Gazteentzat  
Topaketa

2026

Antolatzailea: **hauspoz**  
SO URTEURRENZ

Babesleak: **KUTXA  
FUNDA  
ZIOA**



**Uztailak 08-12**  
**Arantzazu**  
**Aterpetxea**



# HELBURUAK

# IRAUPENA

# EGONALDIA



**Hauspoz**, Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak, **Topakord** akordeoi-jole gazteen topaketaren edizio berri bat aurkezten du.

**Topakord** en helburua gazte akordeoi-joleen topagune bilakatzea da, elkar ezagutzeko, esperientziak partekatzeo eta elkarrekin lan egiteko aukera errazteko. **Akordeoi orkestra baten eraketa ardatz hartuta**, hainbat egunetan zehar ikasleek jarduera musikalkak, bizikidetzako jarduerak eta mota desberdinetako proposamen artistikoak uztartuko dituzte. Horrela, topaketak arlo akademikoa ez ezik, musikaren inguruko giza alderdia ere garatzea du helburu.

Gainera, Topakordek **bakarkako klaseak** jasotzeko aukera ere ematen du, **TOPAKORD MASTER** modalitatearen bidez. Modalitate honetan **Janne Valkeajoki irakasleak emango dituen masterclassak** jasoko dituzte, orkestran eta topaketako gainerako jardueretan parte hartzeaz gain.



- Akordeoiarekiko ezagutza zabaldu eta instrumentua eta honen inguruko aspektuak ikasten jarraitzeko motibazioa areagotzea.
- Talde handitan jotzen esperientzia areagotzea, talde handirako obren lanketaren eta entseguen bidez.
- Akordeoia ikasten ari diren leku desberdinetako eta adin desberdinetako ikasleekin harremanak sustatu, eta haiekin musika partekatu eta interpretatzea.



5 egun:

- SARRERA: Uztailak **08, 12:00**.
- IRTEERA: Uztailak **12, 19:00**.

(\*) Urrutitik datozenentzat, **uztailaren 13an gosariaren ondoren** aterpetxea uzteko aukera egongo da, uztailaren 12an atera ordez (izena emateko garaian adierazi behar da hala izanez gero).



Parte-hartzaileak **Arantzazu Aterpetxean** geratuko dira Topakordeko egunetan zehar, Hauspozeko antolakuntza, laguntzaile, irakasle eta begiraleekin batera.

<https://www.arantzazuaterpetxea.com/>

Arantzazu Aterpetxea topaketako ikasleentzat eta talde antolatzailearentzat bakarrik egongo da eskuragarri, edukiera mugatua duelako, beraz, parte hartzaile bat guraso edo tutoreekin badator eta hauek lo egiteko lekua beharko balute, Arantzazuko eta Oñatiko aterpetxetik hurbilen dauden hotel, aterpetxe eta landetxeen zerrenda duzue eskuragarri, lagungarria izango zaizuelakoan:

<https://hotelsantuariodearantzazu.com-hotel.com/es/>

<https://hotel-sindika.com/>

<https://bordaaranzazu.com/>

<https://araozkoostatua.eus/>

<https://soraluzehotela.eus/>

<https://www.etxeaundi.com/>

<https://www.hotelitorrezumeltzegi.com/>

■ ■ ■

**Topakord 2026** topaketan izena ematea **bi fasetan** egingo da.

**Izen-ematea.** Interesdunek **izena emateko galdetegia** bete beharko dute **martxoaren 18tik apirilaren 10era** bitartean.

**<https://forms.gle/kMuUWFKeUVko1pr9>**

Fase honetan **ez da ordainketarik egin behar.**

Plazak **mugatuak** dira, eta **aurre-izen-emateko formularioak jasotzen diren ordenaren arabera** esleituko dira, plazak bete arte.

Plazak betez gero, ondoren jasotako eskaerak **itxaron-zerrendan** sartuko dira.

**Plaza baieztapena eta ordainketa.** Izen emateak jaso ondoren, antolakuntzak plazak lortu dituzten parte- hartzaileekin harremanetan jarriko da, hurrengo kontuak lotzeko:

- Parte-hartzea baieztatzeko.
- Jardueraren informazio zehatza bidaltzeko.
- Ordainketa egiteko modua azaltzeko.

Itxaron-zerrendan dauden pertsonekin harremanetan jarriko da hutsuneak sortuz gero.

# IZEN-EMATEA



# TOPAKORD TXIKI

6 eta 18 urte bitarteko ikasleak

## EKINTZAK

## LAN-TALDEA

## PREZIOAK



- **Akordeoi orkestrarekin entsegu** orokor eta partzialak.
- Gorputz mugimendu eta musika saioak.
- Jokuak eta bestelako jarduerak begiraleekin, Arantzazuko paraje ederrak aprobetxatuz.

(\*) Topaketara beste musika-tresna bat jotzen duten anai-arrebak joateko aukera eskaintzen dugu. Antolakuntzak etorriko diren pertsonak jotzen duten tresnaren arabera konponduko ditu obrak.



**Marco Sevarlic:** Orkestraren zuzendaria

Aisialdiko **begiraleak**.



- A. Egonaldi eta dieten prezioa topaketako egunetan zehar:  
**170 €.**
- B. Topaketako jardueren matrikularen prezioa:  
**220 €** (bazkide ez direnentzat).  
**110 €** (Hauspozeko bazkideentzat edo bazkideen ikasleentzat).
- C. PREZIOA GUZTIRA:  
**390 €** (bazkide ez direnentzat).  
**280 €** (Hauspozeko bazkideentzat edo bazkideen ikasleentzat).

(\*) **Gau gehiago geratzeko** beharra izanez gero (uztailaren 12tik 13ra), jarri harremanetan Hauspozeko antolakuntzarekin: [hauspoz@hauspoz.org](mailto:hauspoz@hauspoz.org)

(\*) Huspozeko **bazkideek eta bazkideen ikasleek %50eko deskontua** izango dute topaketako jardueren tarifetan.

(\*) Bazkide izateagatik ezarriko den deskontuaz aparte, **familia berekoak diren parte hartzaile bat baino gehiago** Topakord-era badator, **100 €-ko deskontu gehigarria aplikatuko zaie.** (100€-ko deskontua bi matrikulen prezio totalari).

(\*) **Ostatu eta dieten prezioak ez du inolako deskonturik izango**, parte-hartzaile bakoitzaren ostatu eta mantenu gastuak estaltzera bideratzen baita.

# TOPAKORD MASTER

**Bakarkako klaseak jasotzeko interesa  
dutenak**

## EKINTZAK

## LAN-TALDEA

## PREZIOAK



Modalitate honetan **bakarkako klaseak** jasotzeko interesa duen orok parte hartu ahal izango du.

- 2 masterclass **Janne Valkeajokirekin**.
- **Akordeoi orkestraren entseguetan parte-hartzea**.
- Gorputz mugimendu eta musika saioak.
- Jokuak eta bestelako jarduerak begiraleekin, Arantzazuko paraje ederrak aprobetxatuz



**Janne Valkeajoki:** Masterclass irakaslea

**Marco Sevarlic:** Orkestraren zuzendaria

Aisialdiko **begiraleak**.



- A. Egonaldi eta dieten prezioa topaketako egunetan zehar:  
**170 €.**
- B. Topaketako jardueren matrikularen prezioa:  
**220 €** (bazkide ez direnentzat).  
**110 €** (Hauspozeko bazkideentzat edo bazkideen ikasleentzat).
- C. PREZIOA GUZTIRA:  
**390 €** (bazkide ez direnentzat).  
**280 €** (Hauspozeko bazkideentzat edo bazkideen ikasleentzat).

(\*) **Gau gehiago geratzeko** beharra izanez gero (uztailaren 12tik 13ra), jarri harremanetan Hauspozeko antolakuntzarekin: [hauspoz@hauspoz.org](mailto:hauspoz@hauspoz.org)

(\*) Huspozeko **bazkideek eta bazkideen ikasleek %50eko deskontua** izango dute topaketako jardueren tarifetan.

(\*) Bazkide izateagatik ezarriko den deskontuaz aparte, **familia berekoak diren parte hartzaile bat baino gehiago** Topakord-era badator, **100 €-ko deskontu gehigarria aplikatuko zaie**. (100€-ko deskontua bi matrikulen prezio totalari).

(\*) **Ostatu eta dieten prezioak ez du inolako deskonturik izango**, parte-hartzaile bakoitzaren ostatu eta mantenu gastuak estaltzera bideratzen baita.

# IRAKASLE GONBIDATUA

**JANNE VALKEAJOKI**



**Janne Valkeajoki (1992)** akordeoilari eta zuzendari finlandiarrak nazioarteko panoraman bere belaunaldiko interprete nabarmenenetako bat da. Bere jardunak bakarlari gisa aritzea, zuzendaritza eta musika garaikideko konpositoreekin egindako lankidetzaz ugari uztartzen ditu.

**Helsinki Sibelius Akademia** eta **Würzburgeko Musikhochschule-n** ikasi zuen, eta **Musica Nova Helsinki** edo **Acht Brücken Köln** bezalako jaialdietan aritu da. Bere diskografiak barroko garaiko errepertorioetik hasi eta obra berrietaraino hartzen du, eta **Rameauri eskaintako bere grabazioa** The New York Times egunkariak **2024ko disko onenen artean** aukeratu zuen.

Gainera, **2015eko Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketako irabazlea** izan zen.

**Topakord 2026** topaketan **Topakord Master** modalitateko **masterclass-ak** emango ditu.